EDARI GARGARRIYEN ONDAMENAK GIZADIYAN

Plures occidit gula quam gladius. (Axioma antiquum.)

Ajorkiyak bañon geiyago salukeriyak illerazo ditu. (Esaera zarra.)

ITZAURREA

ZUZENEAN amiltokira dijoana atzeratu bear da noiski gaitzur (arrīsku) orretatik, deadar asko ta aundiyakin otsegiten zayola. Ondo izango da beraz nik ere, gizadi guziyari, euskaldunai batezere ta gipuzkoarrai ez gutxiyena, beren ondamendiya erakutsi deyetedan daramaten bide galkorra alik lašterren uzten ez badute, edota ainbeste edari gargarriyak aurrera ere iruntsi nai badituzte.

Gipuzko'an alabaña, ain lurbira (probinzi) txikiya dalarik, bi milla ta bosteun ardotegi daude, ta legezko agiri batean ikusi dedanez nik, ogei milloi ta seireun milla litro ardo edaten dituzte gipuzkoarrak urteoro bataz-bete; baitaere era berean irureun milla litro ugorritik (edari bizitik) eta beste berrogeita bost milla ardo gozotik edaten dituzte. Eta sagardotegiyak ¿zenbat ote dirade? Baserri asko ta asko sagardotegi biyurtu badirade. ¿Eta zenbat sagardo edaten da? Badira sagardotegiyak egun bakarrean upel osoa saltzen dutenak. Ezagutzen det nik gizona ordu gutxitan larogeita emeretzi edontzi (baso) sagardo edan zitubana. Eta egunean amabi, ogei, ogeita amar edo geišeago edontzi sagardo ustutzen dituzten euskaldunak pranko dirade, Bizkai ta Gipuzko'an batezere.

Ludi guziyan edalerik aundiyenetakoak izanik euskaldunak, bizkaitar eta gipuzkoarrak geyen-geyena, ¿egon niteke ni edari askoren ta edari gaiztoen ondamenak nitarrai adierazi gabe? Ez orišen: nere abendari geyegi nai diyot alabaña galtzen uzteko.

SARRERA

Burnarriya deritzayo euskara garbiyan euskaldun askok edariyen espirituba izendatzen dutena. Barazki gozoetatik ta beste gauz askotatik ateratzen dan likura da burnarri edo espiritu ori, edariyai nai bezela nastutzen zayena. Edale bakoitzari dagokiyon neurri zuzenean artzen balitz burnarriz nastutako edari ori, gaitzegin bearrean onegingo luke zenbait alditan edota sasoi onetan.

Neurriz gañera edota bear bañon geyago artzen bada ordea, puzoya da ta eriozkoa, piskabanan-piskabanan badakar ere eriyotza. Ta gai berean aztu bear etzaiguna da, badiradela gizon zikoitz eta gaiztoak larru, zatar eta esateak ere lotsa eman lezaken beste gauz nazkagarriyetatik edariyetarako likur gargarriya ateratzen dutenak. ¡Zer egi aundiya dan gaurko egunean ez dakigula zer jaten degun, ta are gutxiyago berriz zer edaten degun!

Arritzekoa ez da beraz edari berogarriyetatik, geyegi artuta edo txarrak iruntsita, aiñ kalte izugarriyak etortzea edaleen gorputz eta animarako, beren ondorengoetarako, baitaere beste alde askotarako, adieraztera noanez berealaŝen.

BLAS PRADÉRE Y ARRUTI

(Jarraituko da.)

EDARI GARGARRIYEN ONDAMENAK GIZADIYAN

(Jarraipena.)

GORPUTZEAN

Edari gargarriya iruntsitzen dubanean batek neurriz gañera edota bear bañon geyago, burnari iya urdaillera dijoa, emendik estera, gibelera urrena ta burmuñera gero odolaren bidez, birika, larru ta giltzurriñetatik desegiten dala azkenean. Burnarriyak ordea bere ibilli orretan, ikutzen dituban tokiyak ajetzen ditu puzoya utzi ta zapamorroak (mikrobiyoak) sorturazitzen ditubala. Nere esan egitiyen alde begira zer edari usaya botatzen duban edaleen arnasak, zer sudur gorri ta lodiya dadukaten, zenbat miñbizi sortzen diraden alakoen urdaillean, kabatxo ori-gorriyak gibelean ta gatxepela biriketan. Gaitz oyek eta beste asko antzekoak beñere bañon ugariyago ikusten baitira oraiñgo sendetxetan. ¿Eta zergatikan ori, askotan beintzat, gaisoak edota beren aurrekoak geyegi edo gai txarrak edan zituztelako ezpada?

Nik dakidana da gui-e Gipuzko au aiñ txikiya izan ta alaere urteoro, bataz-beste, seireun iltzen diradela bertan biriketako miñarekin. ¿Ez ote da ori, beti ezpadaere, askotan bai, edari geyegi edo gaiztoagatik? Aldi luzea ez da Gipuzko'ako erri txiki batera joan ni, ta bertako apaiz jaun bati galdetzean nik, oi dan bezela, zer berri zan erri arretan, erantzun zirala: «Mendiya adiñako mutill biren illetak izan ditugu astean; sakelean txanponak zituzten bitartean ardotegitik irteten etziran, ta biriketako gaitzak beste mundura eraman ditu, ogeita bost urterekin bat eta ogeita bederatzikin bestea». Ez bada bestelako gaitz gogorretatik ere gutxi-gutxi iltzen diradelako edale aundiyak. Eta gutxigotarako ere ez da, ordikeriyak loikeriya urrean dadukalako, ta guziyok dakigu zer gaitz ikaragarriyak datozen loikeritik.

ANIMAN

Jaungoiko'a toki guziyetan dagoan bezela, osoroago ordea zeruban; antz orretara baitaere gure anima gorputzeko puska guziyetan arkitzen da, burmuñean batezere edota beraiz bezela, oldozpen (pensamentu) ta jakinduriyarekin batera. Arestian esan det burnarriya (edari espirituba) urdaill, este ta gibeletik barrena burmuñera dijoala, gaitzegitera alabaña ezaguera kendu ta moskorkeriya ta erotasuna emanaz.

Ordikeriya gizadiyaren lotsagarriya, diyo Juan Krisostomo deunak, *ebrietas commune generis nostri opprobrium est* (1). Jaungoiko'aren antzekoak izanik gu argitasunean, abereak bañon gutxiyago dala, animaliz beera jartzen da ordiya ezertakoere gauza ez dala, gaitzerako ezpada. Begira bestela moskorturik dijoan bati; marmarketan batean, itzneurketan (bersoetan) bestean, begiyak gorriturik, ibiltzen aztuta bideak artu eziñ ditubala, doi-doi dago zutik zalanzan ta okerka dabillela sugearen antzera; txapela galtzen du, gerrikoa arrastaka darama ta prakak jaso ezin ditu; topatzen dituban orma ta zuaitzak musutzen ditu, mutill koskor guziyak jarraika atzetik ditu, begira daudenak parrez eta algara gozoan daude, bañon ta etxekoak negarrez.

Emakumeak ere badira ordu, gaiztoan, ta gaur ez gutxi, edari zaleak, ardotik ez ainbeste, bañon bai *txuritik* galanki artzen dutenak, beren burubak gero zutik iduki eziñda zerraldo lurrera botatzen dituztela, bat bañon geyago ikusten diradenez.

Aiñ lotsagarriya izatearekin bat ordikeriya, bestelako kalte ta oker askotarako bidea ere da. Edozeñek alabaña erozer gauza kendu edo agin leyoke erraz asko.

Moskorrak ezagutu ditut bultziyak (trenak) arrapatuta. ill ziradenak, orma baztarra edo zuaitz bat jo ta gaizkitu ziradenak, zulora erori ta altxa etziradenak.

Edan askok edo txarrak animari dakarkiyon beste ondamen guziz ikaragarriya erotasuna da. Gipuzko'an urteoro, bataz-beste ta azkeneko aldiyetan, irurogei bizilari erotu dirade, oyetatik ogeita amairu gizasemeak ziraden ta ogeita zazpi emakumeak. Lenago zoro-etxerik Zaragoza'n bestetan ezagutzen ez genduban, esateko, ta oraiñ Zienpozuelos'koaz gañera, Euskalerriya'n bertan gutxiyenaz iru badaduzkagu,

(1) Homil ad pop. Antioch.

Iruña'n bat, Bermeo'n bestea ta Santa Ageda'n irugarrena. Eta ¿zeñ itundu (tristetu) ta naigabetuko ez da jakitean Santa Ageda'ko zoroetxean bakarrik, beste gabe, burutik egindako lareun errukarri daudela? ¿Eta zergatik? Edariyagatik, geyenak beintzat, bertako sendalari Añibarro jaunari entzun izan diyotanez, eta nik neronek ere ikusi izan dedanez bereala esango dedan erara.

Zaragoza'ko eroetxera aspalditxo batean joan nintzanean, gisaso ayetako euskaldun batek ezagutu egin ninduban, ta galdetzean nik zer gatik zegoan toki arretan, erantzun ziran: «Emen nagoanean, jauna, burutik osoro ondo egoten naiz, eta nere errira eramaten nabenean berealasen erotu egiten naiz».

Bere erriyan edan egiten baizun, jakindu nubanez gero, ez ordea Zaragoza'n edaten etzuban. Gañera: aita bat ezagutu det, gorputz aundiko gizona alaere, etxera moskor-moskor eginda joan zan batean seme bat izandu zuban, beti mentsu (serio) ta itun bizitzen zana, ta emeretzi urteko mutilla zala nik dakidan zoroetxebatean ill zan. ¡O eta zenbat orrelako gertatzen dan! Baitaere, azkenik (ez luzatzeagatikan), ama gajo bat badakit, semea ondo zedukana edan gabe Santa Ageda'ko eroetxean zegoanean, ta jayotetxera ekartzen zuban guziyan burutik egiten zitzayon mutillari ardo sabe bizi nai izaten etzubalako. Ill ere zan gisaso au. Beldur izan beaz, edaleak, bear bañon len ill etzaitezten, edota zuben ondorengoak sasoirik onenean illerazo ez ditzazuten, esatera noakizutenez.

BLAS PRADÉRE Y ARRUTI

(Amaituko da.)

EDARI GARGARRIYEN ONDAMENAK GIZADIYAN

(Amaya.)

ONDORENGOAK

Esaera batek ala diyo: *Aritzak ezpala bere arikoa, edo nolako aita, alako semea.* Edota zuaitzaren erakoa izaten baita beraren igalia (fruta). Edariz betetako gurasoak beraz, eta likura gaiztoz erre ta puzoitubak ¿zer ume, nolako seme-alabak izan ta azi ditzakete? Ikusi oi diraden bezelakoak, bestelakorik ez alabaña, osoro gutxitan ezpada beintzat. Ara nolakoak: engelak (anemiko edo odol gabeak), ajeatubak, erkiñak, koskordun ta konkordunak, begi bakar eta begi okerrak, gorrak, itxubak, totelak eta mingiak (mutubak), txanguak, idorrak (paralitikoak), errenak, erotasun ta gatxepelerako gai eder edo egoki-egokiyak. Errukarri oyek guziyak aurrekoen okerrak daramazkite beren gañean, izan duten zori gaiztoaz naiko negar egiten dutela.

Orrek ez du esan nai seme-alaba bakoitzak daramazkiyala izendatu ditudan gaitz ayek guziyak, ez : batzubek daramate gaitz bat, besteak beste bat; batzubek aundiyagoa ta besteak txikiyagoa, onek geigo ta arrek gutxigo; gurasoen edo aurrekoen okerrari ta seme alaba edo oraiñgoen sasoyari dagokiyen erara barreatzen dirade edariyaren gaitzak.

BESTE KALTEAK

Edari geyegitik eta txarretik beste kalte ta gaitz asko ere badatoz. Alperkeriyari ederritzirik lanegin nai izaten ez dute edaleak, ordu osoak eta egunak ere bai batzubetan sagardotegi, ardotegi edo kafetegiyan daramaztela. Bitarte orretan beren emazte ta umeak zer jan ta zer jantzi aundirik ez dute. Ezkondu bear ere etzuten orrelako gizonak.

Jokatzalleak ere oi dira edaleak, aiñ ordu luzeak zerozertan eramateagatik, etxerako bear ziraden dirubak, zorretan ateratakoak ere bai zenbait aldiz, guziyak galtzen dituztela, askotan beintzat. Espetxean (karzelan) katibu egon bear luketen gizonak.

Jokubak berekin oi ditu berriz trankartak, birau ta arnegubak, aserre ta bikudak, eriyotzak ere bai beñ bañon geyagotan. Badakit nik gizona irabazi ziyonari gaubez bidera irten ta biziya kendu ziyona galdutako dirubak atzera beraganatzeagatik. ¿Eta zenbatek beren burubak urkatu edo ill ez dituzte jokuban galduta gero?

Eta edantegitik berandu-beranduban etxeratzen diranak ¿zer istillu ta iskanbilla jartzen ez dute beren emazte, guraso ta umeakin ere bai? ¿Eriyotza gogor eta ikaragarriyak ere egin izan ez dituzte bada, ta prankotan alaere? Ikusi izan ditut beintzat nik espetxetan emazteen eralleak, senarrenak ere bai, bularreko ta urte gutxiko aurtxoak ill zituzten amak, gurasoen eriyotzagilleak eta bestelako asko. Ez ordea edanak egon ez baziran, geyenean beintzat, eriotzgille ayek.

Edale aundiyakin, ordiyakin batezere, okerren-okerrena dagoana da, betiko galeraren bidean bizi ta itxura orretan iltzen diradela. Ara zergatikan: pekatu larriyan egon oi dirade orrelakoak alperkeriyan dabiltzalako, zorrai erantzun nai ez dizeelako, sendiyaren (pamiliyaren) ardurarik batere ta ezertan ere ez dadukatelako, osoro mingañ gaiztokoak diradelako, borroka edo aserreak beñepeñ sarritan dituztela, animaren argitasun edo ezaguera noiznai osoro galtzen dutelako, ta beste zenbait gauz oker eta alderdi gaiztoagatik. Eta ikurtonak (sakramentubak) artzen badituzte ere, gaizki artu oi dituzte ordea, batere arreta gabe edo gutxirekin, egizko damu gabe ta bizitz zabarra usteko asmo sendorik gabe. Eriyotzako orduban berriz, moskorturik badaude, ezertakoere ez dira gai, ez ikurtonak bear bezela artzeko, eztaere pekatubaz damutzeko, ezaguerarik ez dadultatelako; ta moskorturik ez baleudeke ere, animako gauzen ardura aundi gabe egon oi dirade, ikurtonak, sendagayak eta beste guziya bañon edariya nayago dutela. ¡Ordiyai itxoten diyen azken negargarriya, baldiñ eta oarturik aurrez beren lasaikeriyaz, iltzeko garaiz gertatzen ez badirade!

BUKAERA

Nere lan txiki au amaitzera noa. Edari gargarriyen ondamen edota galkerak zerbait adierazi ditudala uste det. Nere esanak asko ez bali-

rakere ordea edaliai ezurretaraño beldur deun bat sarrazitzeko, Idazteunaren (Eskritura santubaren) ateraldi egoki batzubek ezarri nai ditut emen. Isaias deunak diyo: *¡Ai goizetik jaikitzen zeratenok ordikeriya jarraitzeko, ta arratseraño edateko, ardoaz sargoritu zaitezten!..... ¡Ai ardoa edateko altsuak zeratenok, eta ordikeriya eskanziatzeko gizaseme irmoak!* (1) Salomon jakintsubak berriz ala diyo: *Ardoari ez begiratu gorriya dirudinean..... biguñkiro sartzen da, azkenean ordea sugeak bezela ozkegingo du, ta ersugeak bezela puroyak iēuriko ditu* (1). Joel igarle deunak onela otsegiten du: *Esnatu zaitezte, ordiyak, eta negar egizute, ta ardoa atsegiñez edaten dezuten guriyok marruka asizaitezte.....* (3). Eklesiastikoa deritzayon idazteunak ala diyo: *Andre ordiya, aserre aundiya: eta bere betiraiña ta lizuarkeriya estaliko ez dirade* (4). Pablo beldu deunak, azkenik (ez luzatzeagatikan) izkidatzen digu: *Jaungoiko'aren egonkiya* (zeruba) *izango ez dute ordiyak* (5).

Edariyaren atsegin piēka ez uzteagatik oraiñ, beti-betiko zoriona galdu ez dezagun arren ta arren.

BLAS PRADÉRE Y ARRUTI

(1) Cap. 5, vs. 11-22.
(2) Prov. 23, vs. 31-32.
(3) Cap. 1, v. 5.
(4) Cap. 26, v. 11.
(5) 1 Cor. 6, v. 10.